

COVID-19a dela eta, beste segurtasun neurri bat

EROSKI BEZEROEI TENPERATURA HARTZEN HASI DA ZENBAIT GUNETAN

- Zenbait proba egiten ari da EAEn dituen zentroetan
- Bezeroei beren borondatez hartuko zaie tenperatura, eta kontsumitzaileen anonimotasuna gorde egingo da

Elorrio, 2020ko maiatzaren 28a.- Deskonfinamenduari ekiteko, bezeroei tenperatura hartzea eskaintzen ari da [EROSKI](#). COVID-19ari aurre egiteko beste segurtasun neurri bat da. Alde horretatik, probasaioak egiten ari da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait saltokitan.

Bezeroei beren borondatez hartuko zaie tenperatura, eta neurria erabiliko dutenen anonimotasuna gorde egingo da.

"EROSKIIn beti ari gara martxan ditugun prebentzio eta babes neurriak berrikusten eta egokitzen. EROSKI osatzen dugunon tenperatura neurtzen hartu dugun esperientzia aprobetxatuz, dendetan termometro digitalekin eta gure egoitzan kamera termografikoarekin, hala nahi duten bezeroei aukeran utziko zaie denda sarreran tenperatura hartzea", azaldu du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI [prebentzio eta babes neurriak](#) hartu ditu bere saltokietan alarma egoera dekretatu dutenetik Osasun Ministerioak emandako agindu eta jarraibideekin bat etorritik eta bezeroen eta langileen osasuna zaintzeko xedez. Besteak beste, honelako neurriak hartu ditu: garbiketari eta higienezari dagozkionak, eskularruen eta gel hidroalkoholikoaren erabilera orokorra, produktuen eskuragarritasuna, zerbitzuen egokitzapena eta erosketa egiteko orduan ohitura jakin batzuek duten garrantziari buruzko informazioa.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)